

IPUIA

ESKU-UTSIK

Por J. A. Loidi

Ille zuri ni orain, urteak dira, Ondarribi'ko itxas-ertze zoragarri oyetan barrena, urak, goxo-goxo ondar gañean edo, zurrunbilloka arkaitz zulotan usten zigun txirlak eta amaika arri-koxkor pollit biltzen asi nitzala. Ura poza!...

Nere galtza-zamarrek beti zarrastaz beteak, esku-arpegiak atzamurrez... Eskolatik iges egin eta... txirla billa. Ura bai poza!...

Nerekin etortzen zana Katalintxo zan. Katalintxo!... Arpegia, nerea bezin zikiña. Begiak, itxasoa bezin urdiñak. Illea gari-txigor antzekoa...

Katalintxo oso gogoko zitzaidan. Ni berriz beretzat, anai zar bat bezela nitzan. Eta biori... ba, biori, txirlak kilika...

Ba-genituen aundiak eta txikiak; urdiñak eta gorriak; txuri-txuriak ere bai. Batzuek atzaparrak ziruditen; txerri buztanak besteak. Pinpilinpauza baten kolore guziak ziztuztenak ere ba-ziran; eta izarrak bezela dixdix zeriotenak ere bai... Belarrian jarrita «txuuuub...!» egiten ziguten; nunbaiteko ekaitzaren burrunda... Ura bildurra!

—Nungoa ote au?

—Nungoa beste ori?— genion batak besteari.

Gure txirlak ontzi; itxasoa bide; geren ametsak aise... ayek ibillerak! Ayek ordu zoragarriak!

—Begira zak au; Arramendi'ko «Txuri-beltza»-ren adarra zirudik! Au, urak Ameriketatik ekarria dek! Au, prantsesa dek noski!...

Billatu ta pillatu; luzcak, meyarrak, okerrak, zuzenak, motsak, borobillak, adar antzekoak... Billatu ta pillatu; pollitak baiño pollitagoak, gero ta pollitagoak...

Txirlaz gañera, alako arkaitz zulo bat ere ba-genduen, Jaungoikoak eta gu biok bakar-bakarrik genekiena. Arkaitz zulo artan gorde-gordea gure txirla pilloa; arkaitz zulo artan Katalintxo ta ni, gure txirlari begira... txirla billa ez ba-giñan. Eta arkaitz zulo artan, gure txirlak «txuuuub...!» guri, ta gure txirlak dixdix...

Urteak joan ziran. Jaizkibel aldeko sagar-ondoak beintzat sei edo zortzi aldiz ostroz ta sagar gorritz jantzi ziran eta nere leioko liliak beste ainbeste aldiz loretu ere bai... Katalintxo'k amairu, nik amalau. Maitasuna zer zan ere ez genekien eta... nola maite giñan! Ura poza!...

Begiak leen ain urdin, illea leen ain ori, muxu-gorri ura leen baiño garbiago ta nere belarrietan bere algara sarriago.

Bein baño geiagotan, arkaitz artean gebiltzala, olatu



baten ur-zipriztiñak arrapatzen zigunean, Katalintxo'ren illea ur-ttamtto dixdiratsuz betea gelditzen zan. Eta ni, ari begira... nere begien poza!

Baiña, ala ere, gure txirlak, txirlak beti.

—Begira zak gorri-uridin au; ez giniñan onelakorik.

—Goazeman gordetzera, goazeman!...

Egun bat, eta bestea, ta bestea... Itxasoak ekarri ta guk bildu. Ura bion poza!...

Alako egun batean:

—Txirlak etxera eramane nai nizekik— esan zidan Katalintxo'k—. Garbi-garbi utzi nai nizekik.

—Noiz ekarri bear ditun txirlak, Katalin?—galdetu nion andik egun batzuetara, erdi aserre.

—Biar, biar ekarriko dizkiat, ez bildurrik izan. Txirlak nereak eta ireak dituk; bionak dituk...

Egun ayetan, txirlak ezik, ez ote ziran bionak gure ametsak ere? Ez ote zan biona gure alkarganako amets bakarra, gure lillura osoa?

Biaramon ura ere etorri zan; zorigaitzeko eguna ordean. Nere aita, Donosti'tik autoan zetorrela, bidean tunpateko bat jo ta bertan il zan eguna...

Aita il-ondoko nere goibeltasuna!... Katalintxo, neri poztu naian etorriko ba'litz bederen!

Baiña... egun ura joan zan eta beste bospasei ere bai, baiña Katalintxo ez zan azaldu.

Gezurra dirudi onelako uskeri bat dala-ta, zenbateko miña artu lezakean ume batek bere biotzean. Zer ziran gure txirlak eriotz aren ondoan? Zer Katalintxo bera ere?

Baiña...

Katalintxo azaldu ez!

Andik egun gutxi barru, ama ta biok oso urruti joan giñan bizitzera. Katalintxo'ren berririk jakin ez nezakean erri batera. Oso urruti...

Txirlak! Nere txirlak!... Bilduko nituen bai nik, berriz ere nere txirlak! Baiña... Katalintxo?

Katalintxo'k, nork eta Katalintxo'k neri txirlak lapurtu! Baiña, batez ere, Katalintxo, nor ta Katalintxo, aita il zitzaidanean azaldu ez!

Nun zan bere maitasuna? Nun bere nereganako zale-tasuna? Nun bere begietan beti ikusi izan nuen «bion» amets zoragarri ura?...

Katalintxo!... Ezpal bat bezela sartuta neukan biotzean nere betiko aizkide maite izan zan Katalintxo. Gorrotoa nion! Eta griña txarrak eraginda, besteenganako gorrotoa, guzionganaiko ikusi eziña, neronek aizatuz, nere biotzaren jabe egin zan; samintasuna sortu... Ez nuen orduetzeko aizkide on bat bakarrik izan. Biotzitasun guziak alde batera utzi, nere egitekoak nere eran egin, eta, mutiltzar legor, muxu-beltz, nereko, bakartzale ta zakar bat besterik ez nitzan izan.

—Ori bai gizona!— zioten ala ere nere errian—. Zintzoa, langillea, zuzena, buruduna, azkarra...

Baiña... jendeak ba'leki nere biotzeko miña! Nere barruko illuntasuna!... Maitasuna! Ba'al nekien nik, zer zan maitasunik?... Txukatu al nuen iñoiz ere iñoren malkorik?... Nori eman nion nik jatez? Nori jantzi? Nor nere biotz-ondoan goxotu?...

Egun batzuek dirala, Ondarribi'n izan nitzan. Nola ukatu nere Katalin nuela buruan? Ala ere, bere berri galdetzera ere, ez nitzan ausartu. Zertako nere biotzeko ezpal ura berritu?

Bereala jakin nuen orratik, bakar-bakarrik bizi zan amona haar-kaar bat il zorian zegoela. Eta, nik nekienez, amon ura Katalintxo'ren ama zan.

Nik dakit zer xomorrok eraginda, bere oe-ondoko bidea artu nuen. Nor nitzan esan nioncan, bereala gogoratu zan nitzaz eta izketan eta izketan asi zan.

Nik ezer galdetu gabe, (nola ez ba?; bere ama bai-zan!) Katalintxo'tzaz asi zan.

—Eta?—zioten nere begiak.

—Eta?...

Nere biotza, tipi-tapa, kezka betea, geldirik ezin egon zan.

Katalintxo, bere ume kuttun bakarra izan zan Katalintxo... illa zan. Baiña... Jaungoiko maitea!, nere aita il zan egun berean illa!...

Biotza iya lertu zitzaidan. Nola ez nuen nik orduan ezer jakin? Zergatik ez zidaten onelakorik esan? Ni geiago ez mintzearen? Nere aita il zan egun illun artan, neri geiago ez negar egiñaztearen?...

An zeuzkan bere anak ederki asko gordeta gure txirla guziak. Banaka-banaka, erotuta bezela, guziak ikusi nituen; zuzenak eta okerrak, motsak eta luzeak, txuriak eta urdiñak, muturdunak... guziak! Leen bezela, belarrian jarri ta «txuuuub...!» egiten zidaten, eta, leen bezela, ark eta onek, izarren antzera dixdix... Eta ba-zirudidan, batzuen diztiran eta beste ayen «txuub-txuub»-an, nere Katalintxo'ren begietan ainbeste aldiz ikusi izan nuen gure ametsen diztira eta bere algara lilluragarria ikus eta entzuten nuela.

Negarrez asi nitzala aitortu bear. Orduantxe igerri bai nuen an zer gerta zan! Katalintxo gaixoa!...

Garai artan egia jakin izan ba'nu; Katalintxo'k «nerea» izatez utzi ez zuela jakin izan ba'nu... nolakoa izango ote nitzan ni? Biotz obekoa noski, errukitsua, txikitan bezela alaia, jostalea, maitalea, eskuzabala... askoz ohea.

Baiña!!!...

Eta nere bizitz utsa, maitasun gabekoa, ezerezkua, alperkerizkoa bururatuz, eta, batez ere, orduantxe Jaungoikoaren aurrean azaldu bear ba'nu, esku utsik azaldu bearra oroitzuz... amona haar-kaar aren esku ximur baiña «bete» ari cutzirik, biotz dardarak eraginda... negar zotinka asi nitzan...

Esakunak

Arrats gorri, goizian eguzki.

Goizian gorri, laster euri.

Gezurra esan nuben mendian;

neu baño lenago zan errian.

Artzaiak aserratu, gaztaiak agertu.

Zu beti ero: otz eztana bero.